



Bai Euskarari Ziurtagiria sustatzeko konpromisoa

LEITZA ▶ Kontseiluak, UEMAk eta Iparraldeko Mankomunitateak lankidetzan ariko direla azaldu dute

DATUAK ▶ Leitzan 58 saltokik dute dagoeneko Bai Euskarari Ziurtagiria eta Areson 21ek ▶ 7

LIZARTZA ▶

Alondiga ez privatizatzea exijitu diote Udalari

Etxea uzteko agindua jaso dute bertakoek ▶ 6

I. TERRADILLOS



Mireia Carcellerrek irabazi du Pintxo Lehiaketa

TOLOSA ▶ 'Babarrun gosaria' izeneko mokadutxoari esker eraman du saria ▶ 4-5

VILLABONA ▶

Babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa

Hilaren 16an, Gurea aretoan, 18:00etan ▶ 2

TOLOSA ▶

Ekitaldi ugari antolatu dituzte hilaren 16tik 25era bitarte, autodeterminazioa bultzatzeko

Autodeterminazioaren aldeko Tolosako taldeak «abian jarri nahian gabiltzan prozesuari bultzada ematea» du xede ▶ 3

GAUR Zinema etxean 2

8 DVD euskaraz

berria

+ 4,50 €

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

ALEGIA ▶

Elorriko pilotako partidak, gaur arratsaldean

Gaur Elorri pilotalekuan hauek izango dira jokatuko dituzten partidak: G multzoan daudenenak, lenenengoa Behar Zana 1 eta Aurrera-Saiaz 2 izango dira. Bigarrenean Kuku eta Aurrera Saiaz 3. Eta H multzoan, berriz Aurrera-Saiaz 1 eta Intxurre 2 izango dira. Bukatzeko, laugarren partida, Gazteleku eta Behar Zana 2 ariko dira. 16:30etik aurrera dira denak.

ALTZO ▶

Idoia Santxex ipuin-kontalaria, arrakastatsu

Idoia Santxex ipuin-kontalariaren emanaldia liburutegian izan zen herenegun Altzoko liburutegian. Haur ugari eta zenbait guraso ere bertaratu ziren Idoia Santxexen istorioak gogo handiz entzuteko. Hurrengo saioak hilaren 17an Berastegin eta Elduainen izango da, eta Baliarrainen —Kultur Astearren baitan— eta Amezketan, aldiz hilaren 23an.



Idoia Santxex, Altzon. HIRZA

IKAZTEGIETA ▶

Herriko bazkide bazkarirako txartelak salgai

Hilaren 19an Ikaztegieta Herri Krosaren eguna izanik urteroko bazkide bazkaria izango dute. Menuan sarreak, zapoa, azpizuna eta ijito-besoa izango da. Bazkarira joan nahi izanez gero aurretik ordaindu behar da, elkarreko kutxan sartuta (sobreak festa eguneko bazkarirako dela jarri behar da). Asteazkenean bukatzen da izena emateko epea.

TOLOSA ▶

Bilbora joateko autobusa, 15:15ean

Tolosan gaurko Bilboko manifestaziora eta ekitaldietara joateko autobusa antolatuta du Ezker abertzaleak. Hara joateko San Franziskon bilduko dira 15:15ean, handik Bilbora bidean abiatzeko. Barakaldoko BECen Fermin Muguruzaren kontzertua izango da besteak beste, 20:00etan, baina 18:30etik aurrera BECeko ateak zabalik izango dira.

SAN MARTIN JAIK ▶

Pirritx eta Porrotx ere Amasan izan dira

Autoak aparkatzeko arazoak izan zituzten pailazoak ikustera joan zirenek; gaur, Amezketan eta Alkizan ere, jaiak



Pirritx eta Porrotxen emanaldi berria oso arrakastatsua izan zen; frontoia jendez lepo zegoen. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Pirritx eta Porrotx pailazoan saioak ireki zituen atzoko Amasako festak. Pilotalekuan egin zuten emanaldi alai eta jende-

tsua. Auto-ilarak arruntak izan ziren hara iristeko bidean.

Gauean XV. Bakailao Lehiketa egin zuten. Frontoian egin zuten hau ere. Laiotz taldea izan zen musikaz arduratu

zena. Hantxe astindu zituzten gorputzak Amasara hurbildu ziren guztiek.

Gaurko, aldiz, egitaraua aberatsagoa izango da, kantitateari begira behintzat. Izanez ere,

11:00etako mezaren ondoren ahari-joko edo apustua egingo dute eta ondoren asto karrera, denak moztorturik.

Arratsaldean, 18:00etan, bertso jaialdia Aritz Zerain, Iñaki Zelaia, Unai Agirre eta Xabier Legarretarekin. Gai-jarzailea Jon Zaldia izango da. Gauean, berria, Abiba DJ egongo da pilotalekuan, dantzaldia egiteko prest.

San Martin hainbat txokotan

Amezketan eta Alkizan gogotsu helduko diote gaurko egunari: San Martin Eguna antolatu dute bietan. Alkizan arratsaldean hasiko dituzte ekitaldiak: 17:00etan ume jolasak izango dira, ondoren Toka txapelketa, eta 19:00etan meza. Jarraian pilotalekuan afaria egingo dute. Udalak emandakoa. Sagardoa ere egongo omen da. Bukatzeko mus txapelketa azkarreko jokalariek hasiera emango diote lehiaketari.

Amezketan goizetik hasiko dira festan. Meza 11:00etan izango da San Martinen. 14:00etan Txindoki jatetxean bazkaria izango dute, bertsolari eta guzti. Gazte Taldeak eta Ospelak *Sanmar Sound Festival* antolatu dute, hau ere egun osoan izango delarik. Akanpatzeko aukera ere zabaldu dute.

ZIZURKIL ▶

Urkamendi elkarteak 25. urteurrena ospatuko du

N. URBIZU

Gaur Zizurkilgo Urkamendi elkartearen 25. urteurrena ospatuko dute egun osoan zehar. Hamaietako, toka txapelketa, bazkaria eta mus txapelketa izango dira, beste arteen. Dena 11:00ak aldera hasiko da.

Dena elkartean bertan egingo dute. Bazkarian 50 lagun bilduko dira. Horrez gain, Amasa, Villabona, Larraul, Asteasu eta Adunako elkarteetako bi kideri gonbidapena egin zaie.

VILLABONA ▶

Babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa

ERREDAKZIOA

Villabonan, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren behin-behineko kalifikazioa lortu ondoren, notario aurreko zozketa egingo da Fleming esparruan eraikitzen ari diren babes ofizialeko 20 etxebizitzak esleitzeko ordena zehazteko helburuarekin.

Aipatutako zozketa jendaurrean egingo da, hain zuzen ere, hilaren 16an, osteguna, 18:00etan, Villabonako Gurea aretoan.

Informazio gehiago, 943 21 23 54 telefono zenbakian lor daiteke.

ARAMBURU
Salgai edo alokairuan (Tolosa).
Lokal komertziala Herreros kalean.
Salgai (Tolosa).
Pisua San Franzisko, 17, 140 m², Bistekin.
Salgai (Tolosa). Pisua Laskorain 3, kalean.
Salgai (Tolosa).
Ileapaindegi egokitua Iurren.
Salgai (Tolosa). Belardenda, kale Nagusian, negozioa martxan.
Salgai (Tolosako Iurren).
Ofizinarako, klaseak emateko, etab, lokal bikia. Oso modu onean.
Salgai. Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibaran.
Salgai (Tolosa). Garajeak, Leidor azpian.
Alokatzeko. Garajeak. Araba etorbidean eta Batxiller Zaldibian (geltoki ondoan).
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK
Jogurta
Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Autoa salgai. Ford Escort diesel. 52.000 km. Egoera onean. 943 67 10 20.

Todoterrenoa. Uelli autoa, paperekin salgai. 686 79 22 34.

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995ekoa. 153.000 km. 14.000 euro. 943 65 41 43.

Motorra. Yamaha WR 450 F Enduroa. 2005ekoa. Matrikulatua eta seguruairekin. Extrekin,

suspensioa eginak. Egoera onean.

7.500 euro. 600 90 36 28 (Joxe).

Pisua. Leitzan pisua salgai. 2

logela, egongela, sukalde, bainugela, berogailu individuala eta bi balkoi. Sartzeko. 158.000 euro. 943 65 25 81.

GALDUTAKO

Txakurra. Fox Terrier arrazako txakur burria galdu da Tolosan. 696 82 13 84.

TOLOSA ▶ POLITIKA

Ekitaldi ugari Tolosatik, autodeterminazioa bultzatuz

Autodeterminazioaren aldeko Tolosako taldeak ekitaldi ugari antolatu ditu hilaren 16tik 25era, «abian jarri nahian gabiltzan prozesuari bultzada emateko»

ERREDAKZIOA

Euskal Herriak Autodeterminazioa ekimenarekin, eta «maila nazionalean abiatu den dinamikarekin» bat eginez, Tolosan ekitaldi ezberdinak antolatu ditu datozen asteetarako Autodeterminazioaren aldeko Tolosako taldeak.

Hala, atzo egin zuten aurkezpenean, «urte luzeetan gure herriak bizi izan duen gatazkaren oinarriak politikoak direla eta ondorioz, konponbideak ere politikoak izan behar duela ulertzen dugu; autodeterminazio eskubidea Nazio Batuen eskubideen kartan onartua egonik, konponbiderako ardatz ukaezina dela iruditzen zaigu», azaldu zuten.

Euskal Herriak bertako herritarrek izan nahi dutenaren arabera egitura politiko zein

ekonomikoa ukan beharko luke Autodeterminazioaren aldeko taldearen ustez. Halaber, euskal herritarrei bere etorkizunaz galdetzea ariketa demokratikoa dela, eta «euskaldunen gehiengo anitzak garbi adierazia duela autodeterminazio eskubidearekin bat egiten duela eta beronen gauzatzak gatazka gaindi dezakeela», adierazi zuten.

Talde honen arabera, «euskal herritarren hitza eta erabakia aitortu eta errespetatzea bada konponbidearen ardatza, honi erantzungo dion dinamika behar dugu orain, gatazka politikoa elikatzen duen zauria sano eta zornerik gabe itxiko badugu». Bestalde, prozesu demokratikoa gaur egun kinka larrian dagoela adierazten dutela alderdi ezberdinek, eta egoera hori gaindizeko, «guz-



Zerkausian atzo eginiko aurkezpeneko une bat. I. TERRADILLOS

tion aktibazio-implikazioa beharrezkoa dela iruditzen zaigu», gehitu zuten. Egungo egoera, «jauzi historiko handia emateko aukera paregabea» dela uste dute, eta «horrelako aukerak gutxi izango dituela gure herriak eta gogor saiestu» nahi dituzte.

Horrela, Euskal Herriaren hitza eta erabakia errespetatu dadin eta herri honi Autodeterminazio eskubidea aitortzeko konpromisoa hartzen dutela argi uzten dute. Halaber, «urrats garrantzitsuak emateko garaia» dela eta horretarako prest daudela adierazi zuten.

EGITARAUA ▶

Hilak 16 (osteguna). 20:00etan, mahai ingurua Tolosako udaletxean:
Autodeterminazioa: hitza eta erabakia. Hizlariak Elena Beloki eta Pat Ryce.
 Moderatzailea: Martxelo Otamendi.
Hilak 17 (ostirala). Stupenda Jones taldearen kontzertua Bonberenean, 22:30ean.
Hilak 22 (asteazkena). *Udalbiltzaren irurketa Tolosaren 750. urteurrenaren inguruan* hitzaldia Antton Izagirreraren eskutik, 19:30ean.
Hilak 25 (larunbata). Goizean, estropadak Oriai ibaian. Ondoren, bertsoariak eta kalejira Tolosako dultzaineroekin.

Indarrak batzeko beharra

«Abian jarri nahian gabiltzan prozesu demokratikoari bultzada emateko» indarrak bildu beharra ikusten du Autodeterminazioaren aldeko taldeak. Horretarako, ahalik eta herritar gehienaren parte-hartzea bilatzen dutelako, askotariko ekitadiak antolatu dituzte, hilaren 16tik 25a bitartean.

ALTZO ▶ GIZARTEA

'Urtekaria 2005'-eko irabazleak

Erredakzioa ▶ *Urtekaria 2005*-ean bertan azaldutako galderari erantzunez parte hartu zuten artean zozketa egin dute eta Arantxa Lopez eta Jose Luis Izarar izan dira irabazleak. Tolosako Bilintx liburudendan nahi dutena erosteko 75 euroko bi txartel lortu dituzte. Antolatzaileek irabazleak zoriondu nahi dituzte, eta hurrengoan ere parte hartzera animatu herritar guztiak. HITZA


TOLOSA ▶ KULTURA

Topagunearen bigarren urtemugako festa, gaur

ERREDAKZIOA

Topagunearen bigarren urtemuga dela eta, festa berezia antolatu dute gaur Gazteria Departamendutik. Hala, Kultur Etxeko areto nagusian, antzerki emanaldia izango da, 19:00etan, Hirukideko ikasleek osaturiko Txotx antzerki taldearen eskutik. *Beteluko balnearioko mirakuluak* emanaldia eskainiko dute, eta

doan ikusteko aukera dago. Bi antzerkigilek ministroarengana diru laguntza eske doazenean topatuko dituzten oztopoen islada eta ministroaren kontrako mendekua da antzerkiaren istorioa.

Ondoren, 20:30ak aldera afari merienda eta karaokea izango dira Topagunean. Gazteria departamenduak tolosar gaztetxo guztiak gonbidatu nahi ditu festara.



AMASA-VILLABONAko UDALAK

Herritar guztiak jai zoriontsuak opa dizkie.

KULTURA

Babarrunak gosaltzeko!

Ilargi tabernako Mireia Carceller-ek irabazi du aurtengo Tolosako Babarrunaren Pintxo Lehiaketa, 'Babarrun gosaria' izeneko mokadutxo gazi-gozoarekin



Josens Gomez, Javier Arresegor, Mireia Carceller, Felix Garrido eta Mariluz Dominguez. I. TORRALBA

E. ZEIZA - I. TERRADILLOS

Herenguz, 18.00etan hasita, pintxo lehiaketako hamabi parte-hartzaileek prestatutako pintxoak dastatu ondoren, atzo eman zuten jakitera emaitza epaimahaiakideek. Hala, zalan-tza askoren ondoren, erabaki zuten Ilargi tabernako Mireia Carcellerri ematea saria. Bigarren, Ordizia tabernako Mariluz Dominguez geratu zen, eta hirugarren, Hermaideko jatetxe-ko Felix Garrido Lehiaketa honen ondoren, gaurtik aurrera dagoekin tabernetan dastatu ahal izango dira mokadutxo hauek.

Sari banaketan Jabier Arresegor, Epaimahaiako bozera-mailaiek azpimarratu zuzenez, «aurkezutako pintxoan maila oso altua izan da, eta joan den urteko nabarmenago da. Bestalaxe, behin baino gehiagotan probatu behar izan zituzten jaiak erabakia garbi ez baitzuten. Arresegorrek nabarmen- den zuena da, aurtun, sukaldari-ekin gazi-gozo zapoarekin jolatu dutela eta irabazi dituen pintxoak, jateko bateko dastatze menu baterako modukoak dira.

Hirugarren edizio honetan, lehenengo aldiz, Tolosatik kanpo-ko tabernetek parte hartu dute lehiaketan. Donostiatik Zeruko tabernak eta Ondarruko Cantabrico tabernak. Hermaideko jatetxeak, Amets, Ode Itua, Dichen's 66, Itarra, Ilargi eta Ordizia tabernak; Triangulo eta Fronton kafetegiak eta Hermaideko jatetxea izan dira parte-hartzaileak.

Epaimahaiako bozera-maila Sukalde elkarteak Javier Arresegor izan da, eta honetan batera sartu dira. Gure Txokoa elkarteak Iñaki Garmendia, Gure Katoliko Ignazio Matambres, Txinpertakoa Jose Luis Garmen-

SAILKAPENA

TOLOSAKO BABARRUNAREN PINTXO LEHIAKETA

1. Ilargi tabernako Mireia Carceller-ek irabazi du Babarrun gosaria izeneko mokadutxo gazi-gozoarekin
2. Ordizia tabernako Mariluz Dominguez
3. Hermaideko jatetxe-ko Felix Garrido

dia, Iurreko Antonxon Monzon eta Tolosako Babarrunaren Txinpertakoa Jose Ignazio Telleria.

Pintxo irabazleak

Mireia Carcellerrek gosari bat imitatu nahi izan du bere pintxoarekin, umaihai-tresnari-rik erabili gabe jan ahal izango dira horrela, babarruna, odol-kia eta gainontzekoak. Hone-tarako babarrun krema bat aurkeztu du katiluan, kafea baliatzen. Alboan, Tolosako zigarrorokok diruditen odol-itz batenako hotzko karamelaztatutako batzuk ipini dizkio. Honekin batera, goxokiak diruditen babarrunak, ardo gozez egindako karamelaztatutako. Eta azke-nik, aza barkiltoa. Jarraian, hori guztiari, kremari izan diekio, fine egusi bota dizko garmet-ki.

Bigarren postuan Mariluz Dominguez geratu da, hau, joan den urtean hirugarren geratu zen. Honek, berezitasun gisa, laranja gehitu zion pintxoari, eta berak esan bezala, otxeko, botiko produktuek erabili zituen prestatetarako. Babarrun kremarekin, aza-hosteekin eta laranja-gelatinarekin hornitutako hortxo bat aurkeztu zuen. Eta apaintzeko, ibarrako piperrak xehatuta egindako saltoa eta babarrun-ale espas batzuk ipini dizkio.

Hirugarren, joan den urteko irabazlea geratu zen, Felix Garrido hain zuzen ere. Honek, odolki-lasagna, babarrun-fideo, ibarrako pipper perla, aza lelo eta lur-ugailu txinpertakoa erabili zituen prestatu zuten.



Artzain txakurren lehiaketa egingo dute bihar goizean, Iurreamendiko zelaietan. HITA

Euskal ohitura eta tradizioa zabalduz, babarrunaren jaiak

Lasturgo zezen enbolatuen erakustaldia egingo dute estreinaok

ERREDAKZIOA

Babarrun Asteko azken bi egu- netan ere hainbat ekitaldi eta ikuskin izango dira Tolosan. Hala, gaurkoa eta bihar-koa izango dira egun-ki garrantzi- tsuenak. Gaur goizean Tolosa-ko Babarrunaren ehon-zeien lehiaketarekin batera, azoka berezia ere egingo da Triangulo plazan. Hemen, babarrun-ak, piperrak, odolkiak, txerria-kia... erosi ahal izango dira. Postu horien artean, Gureak Iartegioek postu berezi bat jarriko dute. Bestalde, honez gain egingo diren saioetan ere, euskal kulturarekin eta tradi- zioarekin erlazatu dituen egi- tasmok gauzatuko dira, horien artean, ondoren aipatuta- koak:

GAUR

IV. Artzain Txakur Lehiaketa. Iurreamendiko zelaietan ospa- tuko da 10:00etan aurrera. Antolatzaleen esanetan, gaur- ten berezki zaindu dugu partide- tza. IV edizio honetan Gipuz- koa, Araba, Bizkaia, Nafarroa, Iparralde eta Euskal Herriko txapeldekuek hartuko dute parte. Honeko hauek hain zuzen ere: Xabier Urien Abadiñokoa, Ramon Larranaga azkitarra, Lina txakurarenkin, Hau, Gi- putzoko txapeliduna da. Hiru- garren lehiakidea Jose Mari Jauregi Iardurra izango da, Araba eta Oñati-ko txapelidun

hau, Bixdor txakurarenkin ari- ko da. Kego Ardieta azkitar- tarra berez Bizkaia-ko txape- ldua izan zen. Haa, Izar izen- ko txakurarenkin lehiatuko da. Parte hartuko duen esku- lako bakarra Antonio Alustiza, Aresoarra izango da. Hau, Na- farroako txapelidun izan zen eta Txiki izeneko txakurarenkin ariko da Azkenik, Mixel Abet- rito Gauri izango da. Hau, Ioliti etorriko da Iparraldeko txape- liduna da bera, eta Alai izen- ko txakurarenkin etorriko da.

Munduko Aizkolari Azkarren-aren Txapelketa.

Munduko Aiz- kolari Txapelketaren baitan, azkarrena nor den Tolosan erabakiko da bihar, 12:00etan, Beotibar pilotalekuan. Hiru kontinenteetako 64 aizkolari- k hartuko dute parte. Australia, Zelanda Berria, Amerikar Estatu Batua, Frantzia, Suitza, Ka- nada, Espainia eta Euskal Her- rira ordokatuak. Munduko Aiz- korra Txapelketa honetan, Euskal Herria ordezkatzuz ariko dira, Miel Mendegia, Floren Nazabal, Donato Larrea, Anjel Atrosipide eta Jose Mari Olasa- gan. Tolosako probaz gain, hi- laren 17an jokatuko dira bi fi- nalderdik Lekunberrian. Eta hirugarrena egun bat beran- duago Legutian jokatuko da. Azkenik, finala 25ean Az- peltian izango da.

BIHAR

Lasturgo zezen enbolatuen erakustaldia. Ekitaldi berezi hau, bihar 17:00etatik txelidun

izango da Zezen plazan. Ekital- di hau lehenengo aldiz egingo da Tolosaldean. Exibizio hau Euskal Herriko ganadutegi za- hartaren azendekin egingo dute. Marques de Salako behi- zain zuzenekin. Bera baita Eus- kaldiako hierro edo (Españako zezen abeltzaintza asoziazio- ren sinadura) ofiziala duen ba- karra.

Iruskitzumerako zezen plazan oztogo batzuk jarriko dituzte: piramide bat, neurri bereziko banku bat eta plataforma bat. Hala, hiru txanpulu hauekin eta Euskal Herri-ki nahiz Ar- gotik (Españan) datozen be- darrak erretortaririk, beraien abiltza erakutsiz hainbat gau- za ezberdin ikusi ahal izango dira: animaliak piramidea igor- tzen, bankua salto egiten eta beste hainbat sailto eta erre- korte ikusgarriak egiten.

Zezen plazan ikusi ahal izan- go den erakustaldi hau, bigar- tenko da zezenekiko sailto duen Jean Bordaxar lauokoteren kantaldia. Bihar 19:00etatik aurrera atzoko eta gaurko zu- berkotar kantauk abentuko dit- u jasoite honek. Jean Bordaxar- rek hitzak eta musika berriak asmatzen ditu eta dagoeneko bi disko plazaratuak ditu. Be- steak beste, bertutan ahizki edo erradak anak abestak inter- pretatuko dituzte. Euskal Her- rian nahiz kanpoan eskaini di- tuzte emanaldiak. Hala nola Parisen, Katalunian eta Que- bec-en.

ASTEBURUKO EGITARAU



Estreinaok Tolosaldean, zezen enbolatuz izango dira bihar. HITA

Antolatzaleen esanetan, iragarita zegoen ekitaldiak- to bat bertan behera geratu da: Usaberri dantza taldearen emanaldia hain zuzen ere, hau, gaur, 22:30etan Beotibarran izan behar zuen.

GAUR

08:00. XX. Tolosako Babarrunaren Ekizioen Lehiaketa ospatuko da Triangulo plazan.

09:00. Azoka berezia izango da Triangulo plazan (babarrunak, piperrak, odolkiak, berriak, ardo...).

10:30. Gure arte dultzaina taldea.

11:30. Txepela norik onden jantzi VIII. lehiaketa, Txinperta elkartean.

12:00. Tolosako Babarrunaren Kofradia- ren esku-ki, babarrun- jateko eta Vifa Laguarda ebeko ardo edateko aukera Triangulo plazan.

12:30. Tolosako Hirukide, Laskorain eta Samaniego ikaslebetako ikasle- ren ber- to emanaldia Triangulo plazan.

13:00. Tolosako Babarrunaren Ekizioen Lehiaketako sari banaketa Fariakalean.

13:00. Lasturgo zezen enbolatuekin erakustaldia eta festa Zezen plazan.

19:00. Jean Bordaxar Lauokoteren kantaldia Berdua plazan.

19:00. Womadex TX dokumentalaren zine emanaldia Leidor aretan.

tabernetan, Ezpeleta ostalaritza elkarteak antolatuta 500 lagunentzat.

17:00. Hiri berriak haur ikusizuna, Leidor aretan.

18:00. Aida Zaharra Dendak antolatuta, Fadariko: La gran familia kale ikusizuna izango da Aida Zaharrean.

18:30. Incasables berango.

20:00. Todos nacemos vivoso baranganen bigarren saioa.

BIHAR

08:00. XX. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomia Fariakalean.

10:30. IX. Artzain Txakur Lehiaketa egingo da Iurreamendiko zelaietan.

12:00. Tolosako Babarrunaren Kofradia- ren esku-ki, babarrun- jateko eta Vifa Laguarda ebeko ardo edateko aukera Triangulo plazan.

12:30. Tolosako Hirukide, Laskorain eta Samaniego ikaslebetako ikasle- ren ber- to emanaldia Triangulo plazan.

13:00. Tolosako Babarrunaren Ekizioen Lehiaketako sari banaketa Fariakalean.

13:00. Lasturgo zezen enbolatuekin erakustaldia eta festa Zezen plazan.

19:00. Jean Bordaxar Lauokoteren kantaldia Berdua plazan.

19:00. Womadex TX dokumentalaren zine emanaldia Leidor aretan.

EZKONGAIK 2007-08

DONOSTIAKO HERRI IRRATIA - OM 1224 - FM 9,8

<p>IZARRA BITXITEGIA Juan XXIII Plaza, Lasarte-Oña. 943364945. Oparia: urreko ezkontza-erantunak eta ezkontza-hornak.</p>	<p>SANCHEZ INPRIMATEGIA Easo, 33. Donostia 943463306. Katalogoak eta gonbidapenak. Oparia: ezkontzarako gonbidapenak.</p>
<p>MUNDO HUEBLE Arg. Iruña, 946331161 Esko gutietako alfonak. Oparia: 300 eurotako balo- duno erosi eta beko.</p>	<p>NAMUX GANG DJ Guk musika, giroa eta dibertsioa jartzen dugi, zuek ezkontza. 647045966. Oparia: ezkontza eguneko emanaldia.</p>
<p>SILKEN AMARA PLAZA HOTELA 943464600 Oparia: Silken katibo hotela batetan 2 pertsonentzako estebua (2 gu + gosarok).</p>	<p>KOTXE KLASIKOAK / ROLLS-BERRI ELK. Aitarren, Kola etxea, Aduña, 627467219. Oparia: ezkontzarako kotxezko zerbitzua.</p>
<p>LASTURREKO ZEZENAK San Nikolas plaza. Lastur. 943199033. Oparia: "zezen festa" dohainik.</p>	<p>MURKKA DANTZA TALDEA Elkizunetako amaierak hobetena. 647263086. Oparia: elkizunaren irterako emanaldia.</p>
<p>ATZBELTZ Arteta, 1. Andoain 943591226. Sukaldeko albari eta ebeletara elektrikoak. Oparia: AEC F-30060 ontzi garbigailua.</p>	<p>AUZMENDI SASTREA Bergara, 1. Donostia. 943424060. Oparia: senargai jantziarentzako 300 eurotako erosi eta barta.</p>
<p>BAYON Bergara, 23 - Donostia. 943425087 Emaztegi jantziak. Oparia: emaztegi jantziarentzako 300 eurotako erosi eta barta.</p>	<p>Posta elektronikoa. novios@herri-irratia.com</p>

2007-08an ezkontzen bazara, azaroaren 22a aurretik hau bete eta ondorengo helbidera bidali: HERRI IRRATIA - DONOSTIA, Garbailu, 19. 20004 Donostia

Senargaiaren izen-abizenak:	Tel.:	Herria:
Helbidea:	Posta kodea:	Tel.:
Emaztegalaren izen-abizenak:	Tel.:	Herria:
Helbidea:	Posta kodea:	Tel.:
Ezkontzaren gutxi gora-beherako data:		



Lehiaketa-ko pintxo irabazlea, Babarrun gosaria. I. TORRALBA

GIARTZUNGO VII.ESKALADA TXAPELKETA HERRIKOIA

AZAROAK 18
ETORRORRIK OROKORRIK
Izen ematea: 943 49 25 52
GOMER KALZADURA
GUGUEN BERTAN

Antolatzaleak: hitza

LIZARTZA ▶ GIZARTEA

MADDI SOROA

Lizartzako Alondegia eraikineko lehenengo pisuan bizi den familiak urtea amaitu aurretik etxea uzteko eskakizuna jaso du Udalaren eskutik. Gainontzeko bi solairuetan kokaturiko euskaltegi-barnetegiak edota bertso eskolak, besteak beste, erabilpenik gabe jarraitzen dute duela bi urte inguruz geroztik.

Udaleko arau subsidiarioek diotenaren arabera, 100 etxebizitza berri egiteko proiektua du eskuartean Udalak. Alondegia pribatizatzea eta bertan etxebizitzak egiteko asmoa, proiektu berari dagokie.

Alondegia-Udaletxe Zaharra bizirik plataformak, Alondegia «ez saltzeko» exijitu dio beste behin ere Udalari, «Alondegia herriarena delako eta herriak Alondegia behar duelako». Eraikina herriarena izanik, «herriaren hitza bete» dezala eskatu dute, baita «Lizartzak hainbeste etxe ez dituela behar» eta «eskaintza eskaria baino handiagoa dela» ere.

Plataformak Udalarekin biltzeko aukera eskatu du behin eta berriz; Udalak, ordea, «muzin» egin die eskakizunei. Udalarekin bildu eta Alondegiaren inguruan mintzatzeko eskakizuna 2005eko urriaren 11n egin zuen lehenengo aldiz plataformak. Harrezkero «hamaika eskakizun, idatzi edota sinadura bilketa» egin badiuzte ere, oraindik ez dute Udalarekin biltzeko aukerarik izan. Ekaina amaierako plenean Alondegia Udaletik kanpo geratu zela izan zela, esaterako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean irakurruta jakin zuten herritarrek.

Egoera honen aurrean, Lizartzako Udalaren jarrera «demokraziaren aurkakoa» dela azaldu dute plataformako kideek, «bilerak egiteko eskubidea ukatu digutelako eta informaturik egoteko eskubiderik ere ez dugulako» adieraziz.

Datozen asteetan, Alondegia «bizirik mantentzearen» aldeko jardunaldiak antolatu dituzte plataformako kideek.

Alondigia «herriarena delako» ez pribatizatzea exijitu diote herritarrek Udalari

Eraikinaren lehenengo pisuan urtetan bizi izan den familiak urtea amaitu aurretik etxea hustutzeko eskakizuna jaso du Udalaren eskutik



Alondegia saldu nahi du Udalak etxebizitzak egiteko; herritarrek, ordea, «herriarena denez beharrezkoa» dela azaldu dute. MADDI SOROA

Alondegi-Udaletxe Zaharra Bizirik plataformak

Alondegi-Udaletxe Zaharra Bizirik plataformak uztailaren 15ean sortu zuten Lizartzako guraso elkarteak, Otsolar dantza taldeak, Otsabio kirol elkarteak, Gaztetxeak, Axurdario herri plataformak, Batasunak eta beste hainbat herritarrek.

Plataforma Alondigako itxura eta logikarik gabeko desgaitzea eta desmantelamentua geldiarazteko sortu zen. Helburuen artean nagusia, Alondegiak duen jabetzako

patrimonio historikogatik, bere izaera publikoa salbatzea izan da.

Guztiaren gainetik, «Alondigia herriarena dela eta herriak behar duela» defendatzen dute plataformako kideek, besteak beste, herritarren betebeharetarako, herriko dinamizari eutsi eta laguntzeko, dantza, antzerki edota jaialdiak burutzeko eta kanpo harreman, egonaldi, otordu, ikastaro nahiz erakusketen kokaleku izateko. ◀



Alondegiaren aldeko plataformako kideetako batzuk. JAIONE ASTIBIA

urteurrena ▶

Lehen urteurrena
**Joxepa Amundarain
Tolosa**

(2005eko azaroaren 10ean hil zen)

Hosto bat, hosto bi,
orbela bide goxoaren irudi
pauku bat, pauku bi,
zure arrastoan guk lasai segi

Bere senideak

Haren aldeko meza izango da bihar
11:30ean Amezketak San Bartolome
parrokian. Aldez aurretik mila esker

AMEZKETAN, 2006ko azaroaren 11n



▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio berogatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ EUSKARA

Euskararen alde lankidetzan aritzeko konpromiso irmoa

Kontseiluak, UEMAK eta Iparraldeko mankomunitateak Bai Euskarari Ziurtagiria sustatzeko asmoa azaldu dute



Margari Zabaleta, Maider Goñi, Miren Seguro eta Mikel Gerriko atzoko prentsaurrekoan. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Kontseiluak, UEMAK eta Iparraldeko Mankomunitateak Leitzan euskararen alde lankidetzan aritzeko asmoa azaldu zuten atzo. Aipatutako hiru erakundeek Bai Euskarari Ziurtagiria elkarrekin sustatzeko

konpromisoa hartu zuten eta lankidetzan honen aurkezpena izan zen atzoko. «Guztiok elkarrekin abiatu dugun elkarlana oso interesgarria da, lehenetik egiten ari zen lana osatzera zuten atzo. Adierazi du kontseiluko ordezkariak.

Leitzaldean Bai Euskarari

Akordioa abian jarri zenetik hiru urte igaro dira jada eta eman dituen fruituak ikus ditzakegu. Aurten Leitzaldeko 79 saltoki, enpresa eta bestelako entitatek eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria. Horietatik 58, Leitza eta Aresokoak dira eta gainerako 21ak, Goi-

zueta eta Aranokoak. Horretaz gain, aipagarria da UEMAK Leitzaldean egindako lana.

Esate baterako, *Tratuan ere euskaraz!* proiektuak merkataritzan euskararen erabilera sustatzea du helburu. Horretarako, Bai Euskarari Ziurtagiriak ballatzea erabaki dute UEMAKo kideek, merkatariek eta bide batez bezeroek, lan munduan euskara erabili dezaten. Bai Euskarari Ziurtagiriak orain arte Leitzan egindako lanari jarraipena eman nahi dio, lan mundua euskalduntzeko tresna egokia baita.

Kontseiluko bozeramaileak euskararen normalizazio prozesuan Bai Euskarari Ziurtagiriak duen eginkizuna azaldu du: «Bai Euskarari Ziurtagiria sustatu eta ezagutarazi nahi dugu, euskaraz bizitzeko apustua egin duen Udal honentzat ekarpen garrantzitsua izanen delakoan». Udalak ere bide horri jarraituko diola gehitu du herriko alkateak, «Udalak euskara erabiltzea, jakina, ezinbestekoa da herrian euskararen erabilera normalizatzeko», adierazi du Patxi Saenz Lazkonok, Leitzako alkateak.

Ildo horretatik, Maider Goñik, Leitzako euskara teknikariak, bere iritzia eman du honen inguruan eta arrazoia eman dio Saenzi, «horrela, Leitzaldean euskaraz ikasi, lan egin, erosi, irakurri, informatu, azkenean euskaraz bizitzea, errazago egingen dugu guztiok bide honetatik segituz gero».

Duela 6 urte sortu zen Bai Euskarari Ziurtagiria eta dagoeneko, Euskal Herri osoko 1.350 entitatek eskuratu dute. Gero eta herri gehiagok hartzen dute parte proiektu honetan eta honen adibide garbia izan zen atzoko hitzarmena.

LEITZA ▶

Gaur jokatuko du ligaxka Barriolak Irujoren aurka

N. GARZIA

Ostegunean aukeratu zituzten Barriolak eta Martinez de Irujok gaurko partidarako pilotak. Leitzarrak mugitzeko errazak direnak aukeratu zituen, Iosu Irigoien bere presatzaile fisikoaren laguntzaz, 103,2 eta 103,6 gramokoak. Iberotarrak, berriz, 105,7 eta 105,8 gramokoak aukeratu zituen.

Urte eta erdian eskuko arazoak izan ondoren, leitzarra pozik dago ligaxkara iristea lortu duelako, erabat osatu denetik jokatzen duen lehenengo txapelketa baita. Eta aukaria favorito izan arren, bera pozik dago: «Pasatu ditudanak pasata, gauzak beste era batera ikusten ditut; bost axola favorito izan edo ez, pozik nago eta bada-ki hobetu dezakedala».

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baiarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebexa:

672411

▶ **Ikaztegjeta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzioz klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

LEITZA ▶ GIZARTEA

Aralarrek 6 proposamen egin ditu, legealdia agortu aurretik bultzatu nahi dituen proiektuak aurkezteko

Etxebizitza, hirigintza, gizarte, turismoa eta zerbitzu orokorrak dira puntu nagusiak

N. GARZIA

Legealdia amaitzeko urte bat baino gutxiago gelditzen denez, epe hau amaitu baino lehen Aralar taldeak bultzatu nahi dituen proiektuak jakitera eman ditu.

Lehenengo puntua etxebizitza da, Landa Goi-koa eta Landa Behekoaren hirigintza planaren aldaketa delakoa. Honen barruan, babes ofizialeko etxebizitzak egitea da proiektuko garrantzitsuenetakoa. Honetaz gain, Alde

Zaharra mantentzea eta apaintzea dute helburu, Elbarren kalea, zona komertziala, trafiko gutxiagorekin mantentzea, azpiegitura publiko berriak egituratzea, hau da, parkeak eta berdegune gehiago egitea, erreka moldatzea eta herriko zeharbidea kongestioa arintzeko, eremu berriko zeharbidea kotxeak eramatea.

Bigarren puntuari dagokionez, gasolindegiz zaharrekotako bibrilugunea berritzea du helburu. Zeharbideak jarriko dituzte eta Lopeneko iturria biribilgu-

nearen erdian kokatuko dute.

Herriak dituen gabeziak asezteko gizarte zentro bat sortzea ere proposatu du Aralarrek, ondorengo erabilpen hauekin: gazteen gunea, umeen gunea, talde kulturalentzako gunea, hitzaldien gunea...

Turismoa bultzatzea du xede laugarren puntuak, eta horretarako Plazaolako geltokiaren eraikinen ematea eskatu nahi du. Gaur egun, eraikin horiek Nafarroako Gobernuak dira eta honek deus egiteko asmo-

rik ez dutenez, Aralarrek herriarentzat gelditu daitezela proposatu du. Modu honetan, aterpe turistiko bat jarri ahalko litzateke eta trenbide, mehategi eta burdinolen historia biltzeko gune bat zabaldu.

Zonaldeko mankomunitate orokorraren sorrera ere proposatu dute, Areso, Arano, Araitz, Betelu, Larraun, Lekunberri eta Goizueta artean koordinazio hobetzeko. Amaitzeko, azkenekoa abertzale eta ezkertiarren zerrenda bateratuaren sorrerari dagokiona da.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Baliarrain. Kultur Astearen baitan, udaltxeko kultur gelan, 17:00etan, haur eta gaztekoie zuzendutako tailerra: musu margoketa eta ileapaindegia izango da.

Tolosa. Babarrun Astearen egitarauaren barruan: 08:00etan, XIX. Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketa ospatuko da Triangulo plazan. 09:00etan, Azoka berezia izango da Triangulo plazan. 10:30ean, Giro arte dultzaina taldea.

Tolosa. Immigrazioa eta giza eskubideen jardunaldien baitan, 11:00etatik aurrera, San Frantzisko ibiltokian (Arxiboaren parean), *Hesiaren bi aldeak* erakusketa, May Gorostiagaren bakarrizketa, *Alekos* umeentzako narrazioa eta hainbat etorkinek beren istorioa kontatuko dute.

Villabona. Bilbon 15:30ean egingo duten manifestazioa eta BEC-eko kontzerturako autobusa antolatuko dute. Villabonako Sacem ingururitik aterako da 15:30ean. Kontzerturako sarrerak www.ticketticket.com orrian. Izena emateko, Zuzurkilgo Aurreran eta Villabonako Iratzarren. Itzulera, 02:00etan.



Ikastolakoak ere Babarrunaren Astean sartuta

TOLOSA ▶ Herriko ikur den jakiaren Astearen aitakia erabili nahi izan dute Tolosako Laskorain ikastolan dastamenaren inguruko saio txiki bat egiteko, jangelan. Hala, zapore desberdinak (gazia, gozo, mikatza,...) dastatzeko aukera izan dute ikasle gazteek. Horretarako bi sukaldarien laguntza izan zuten, zapore bakoitzaren ezaugarrien berri eman zieten. Dastatzaile onenen pare aritu ziren, beraz. Honetaz gain, babarrun jatea ere egin zuten ikastolan bertan, iaz euren ikasle batzuk ereindakoa, hain zuzen ere. Hala, gaur goiz guztian zehar Tolosako txoko ezberdinetan garatuko den azoka berezian ere Ikastolako zenbait neska-mutulek bertso saioa eskainiko dute hain ospetsua eta goxoa den Tolosako babarruna gai hartuta. HITZA

SAN MARTIN JAIK

Alkiza. 17:00etatik aurrera, haur jolasak, herriko plazan edo pilotalekuan. Ondoren, Toka Txapelketa. 19:00etan meza nagusia herriko elizan. 20:00etan, afaria frontoian. Sagardoa edateko eta afaria bertan egongo da. Segidan, Mus Txapelketa Azkarra.

Amasa. Egitarauaren baitan, 11:00etatik aurrera, meza nagusia izango da; ondoren, ahari jokua eta asto karrera moztorturik; 18:00etan, bertsolari jaialdia: Aritz Zerain, Iñaki Zelaia, Unai Agirre eta Xabier Lejarreta. Gai-jartzailea, Jon Zaldúa; 23:00etan, dantzaldia Abiba DJ-arekin.

Amezketa. San Martin auzoan, egun osoko festa: goizean zehar erromerian ariko dira, 14:00etan bazkaria, arratsaldean mikrofono libre eta joku dibertigarriak. Iluntzean, herrian triki poteoa. 21:00etan bokatak eta 22:30ean Skamatxine eta Birracel. Akanpatzeko aukera ere izango du nahi duenak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Etxebeste, J.M. Gemikako arbola, 3. 943 65 10 40.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



ZORIONAK! Hodei Galarraga Agirre (Villabona). Maitasunezko zoriontasun mugagabeen bizi gaituzen! Zorionak preziosa, ai ama!!! Zure alboan gaituz. Muxuak!



ZORIONAK!
 Sinesmen osoa dugu gure nahiak betetzeko dugun ahalmenean.



URTE ASKOAN
 Mikel Altuna Barandiaran (Tolosa). Gaur 8 urte. Aita, ama, arreba, eta familia guztiaren partetik, ondo-ondo pasa eguna.



ZORIONAK
 Zorionak zuen zilar ezteletan! Zuen familia eta Amale eta Joxe Mariren partetik. Ondo pasa ta muxu handi bana!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.